

Tomas Artaras Lekue
Arrigorriaga, Bizkaia (1918)

Aurkibidea

Biografia

Arrigorriagako Briskietako auzoan jaio zen 1918. urte inguruan. Ama Uribarrikoa zuen eta aita Briskietakoa. [Basauriko euskararen azterketa linguistikoa](#) lanerako egin zitzaion elkarrizketa Zolloko [Jesusa Lekanda](#)rekin eta Bilboko [Maria Moja](#)rekin batera.

Zintak

AGO-012

- **Proiektua:** Basauriko euskararen azterketa linguistikoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Data:** 1990-10-01
- **Iraupena:** 25 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Gisasola, Jaione
- **Emalea:** Arretxe, Jon

Pasarteak

1. Don Jose Garai medikuaz

- **Erref:** AGO-012/002
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:02:35. **Bukatu:** 00:04:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Don Jose Garai medikuaren inguruko anekdotak kontatzen ditu Tomasek. Txerria inguruko baserri guztietan egoten zela dio eta urdaia edo bestelako txerriak egunero jaten zituztela kontatzen du.

2. Ez ezkontzeko trikimailuak

- **Erref:** AGO-012/004
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:04:43. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Lagun bati gurasoek emaztegaia etxera ekarri eta hark etxetik alde egin arte logelan ezkutatuta egon zeneko pasadizoa kontatzen du Tomasek.</p>

Transkripzioa

- Hemen [...] be, bere gaztetan... han lo itten euen, bere etxien lo itten euen. Ta berak ez dakixela emon iñuala gurasuk, zera, konbenixua in euden eta nobixie ekarri otsen etxera! Ta badator gero gurasokaz nobixa hori, ta bestiek balkoitik erreparau ta igerri, hara antza doazelako! Sartuta kuartuen, kuartuen'e krisketa, kordelagaz krisketa amarrau, krisketagaz, ta kuartuen geldi joan behar auden, ta joan ordun urtein auen.

- Baie urtein ez!

- Ya, ya. Batez, urten be, bestiok banketi preparaute, nobixi ta aitte ta ama ta.

- Ta bazkaitten be ez zan etorri?

- Etorri zin, bestie kuartun sartute, bazkaldu be ez, baie urten be ez, aita joan arte! Apai... hari... bai. Hargaitti [...] demasa euazen! Bai.

- Asko?

- Jode!

3. Idiekin ibiltzeko aitaren arropak jantzi behar

- **Erref:** AGO-012/008
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:11:28. **Bukatu:** 00:12:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Idiekin ibili behar baziren aitaren praka eta txapela jantzi behar izaten zituztela kontatzen du Tomasek, jotzera joaten omen ziren bestela eta.

4. Ijitoak etxera

- **Erref:** AGO-012/009
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:12:21. **Bukatu:** 00:14:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:

Etxera ijitoak joan zireneko pasadizoa kontatzen du Tomasek. Akuiluarekin mehatxu eginez bidali omen zituen aitak.

5. Behiak emakumezkoentzat, idiak gizonezkoentzat

- **Erref:** AGO-012/010
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:14:20. **Bukatu:** 00:16:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Baserrian idien eta behien gobernuan ibiltzen zireneko anekdotak kontatzen dituzte. Behiak emakumezkoen animaliak omen ziren eta idiak gizonezkoenak.

6. Euskaraz gutxitan

- **Erref:** AGO-012/013
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:21:40. **Bukatu:** 00:24:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Euskararen inguruan hitz egiten dute. Gipuzkoakoekin hitz egiteko sailtasunak izaten dituztela. Soldaduskan euskaldunak egon arren gazteleraz hitz egiten zuen Tomasek. Eskolan hasi zirenean ikasi zuten gaztelera eta lanean ere gazteleraz egiten zuten gehienetan. Euskaldun asko zeuden eremuetan egiten zuten soilik euskaraz. </p>

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com